



◆ ERRUGBIA - Urrezko Kopa

## Hernani finalean Durangoren aurka

Ohorezko B Mailan, 1go faseko finala jokatu du bihar Hernanik, eta irabaziz gero, 2garren fasea jokatu luke lehenengo mailakoen aurka.

SENIOR Mailako Hernani taldea, Ohorezko B Mailako Urrezko Kopa jokatzen ari da eta bihar, lehenengo faseko finala jokatu du Durangoren aurka. Landaren izango da eguerdiko 12:00etan eta bi ordu beranduago, 15:00etan, ETB3an ikusteko aukera izango da. Hernanik gaur finala irabaziko balu, Urrezko Kopako bigarren faserako sailkatuko litzake eta Ohorezko Mailako hiru taldeen aurka jokatu luke: Gernika, Bera Bera eta Ordizia. /7



## Otsailetik apirilera ekintzaz beteko da Hernani

TXOTX denboraldia hasi da, eta otsailetik aurrera ekintzaz beteko da Hernani. Otsailaren 7an da aurreneko ekintza, aurtengo berrikuntza: *Sagar Martxa*, oinezkoentzat ibilaldia. Hortik aurrera, beste 9 ekintza antolatu ditu udalak, denen gusturako: haurrentzako emanaldiak, kontzertuak, piroteknia, kross herrikoia... /3

◆ PELOTA

### Bi final jokatu dituzte gaur hernaniarrek

Paleta nesketan, Irazustabarrena eta Ugaldek Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu dute Amurrioren aurka. Mañarian izango da 17:00etan. Bigarren mailan berriz, Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu dute Tijero eta Zabalak Suberriren aurka. Anoetan izango da 16:00etan. Horrez gain, Berria Txapelketako bi kanporaketa jokatu dira gaur eta bihar, eta pelota partidu gehiago ere izango dira. /6

❖ ERRAUSTEGIA

### Peio Lozanok hitzaldia emango du asteartean

Erraustegiari buruzko hitzaldia izango da datorren asteartean Biteri kultur etxean. Zer jakin nahiko zenuke erraustegiaren inguruan? jarri diote izena hitzaldiari eta Hernaniko Zero Zabor taldeak antolatu du. /2

### GAUR KRONIKAN

**Andoingo** Adarra enpresako langileak greban /2

**Laburrak** /2

**Jasota bezala:**  
Langile Ikastola /3

**KIROLAK:** Errugbia, pelota, futbola, areto futbola, arrauna, bola... /6-7

**Eskelak** /7

**Buruntzaldean** gidabaimena euskaraz eta zinea /8

**ELIZATXO**  
**Ikastola**

**baikara**  
Gipuzkoako Ikasteen  
Gurasoen Federazioa

Matrikula otsailaren 1etik 12ra  
Ordutegia: 9:00- 12:30 eta 14:30 - 16:30  
(Ikastetxea bisitatu daiteke)

943 557 224 (HH-LH)      943 552 633 (DBH-ESO)  
ELIZATXO 9      FLORIDA 28

[www.elizatxoikastola.com](http://www.elizatxoikastola.com)

**TILIN** \* **MAITE**  
**\* TOLON**

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
☎ 943 55 56 94

Txirrita, 10 - HERNANI

**pelisimo**  
FOTODEPILAZIO AURRERATUA

94 333 18 10

Kardaberaz kalea, 35  
[www.pelisimo.com](http://www.pelisimo.com)

Ebatzi ezazu zure gorputzeko edozein ataleko ilea fotodepilazio berritzaile sistema honekin.  
Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.

Bizkarra iztondoak hanka 1/2 besoa axilak

**tarifa bakarra:**  
**30€**

**UNISEX**

- Aurpegi fotogaztetzea  
Eta gainera: - Aknearen tratamendua  
- Aurpegiko orbanen ezabaketa

# 'Zer jakin nahi zenuke erraustegiaren inguruan?'

Peio Lozano EHuko irakasleak hitzaldia emango du Hernanin datorren asteartean, erraustegiari buruz. Zero Zabor taldeak antolatu du, «Zubietan eraiki nahi duten erraustegiaren inguruan dagoen informazio eskasia dela-eta».

PEIO Lozano EHuko irakaslea eta ingurugiro antolamenduko aditua izango da datorren asteartean Hernanin, Biteri kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan. Erraustegiari buruz hitz egingo du Lozanok Biterin, Hernaniko Zero Zabor taldeak antolatuta.

*Zer jakin nahi zenuke erraustegiaren inguruan?* jarri diote izena hitzaldiari, eta asmoa da, Zubietan jarri nahi

den erraustegiari buruz informazioa ematea hernaniarrei. Zero Zabor taldeak prentsa oharrean dioenez, «Zubietan (Hernanitik 5km-ra) eraiki nahi duten erraustegiaren inguruan dagoen informazio eskasia dela-eta antolatu dugu hitzaldia».

Lozano aditua da ingurugiro antolamenduan, eta lehen ere hitzaldi asko eman ditu erraustegiari buruz.

Hitzaldia urtarilaren 26an  
izango da Biteri kultur etxean,  
arratsaldeko 20:00etan.

Aldez aurretik Lozanori  
galderaren bat egiteko:  
[zerozabor@gmail.com](mailto:zerozabor@gmail.com)

## Galdera asko

Zer behar du erraustegiak ondo funtzionatzeko? Zer kalte eragin ditzake? Inguruan martxan diren erraustegiekin nola funtzionatzen dute?... asko izan litezke galderak, eta Lozanok horiek edo jendeak egindako beste asko erantzungo ditu asteartean Biterin.

Bestalde, asteartea baino lehenago ere galdera egitea

badago Lozanori, eta hark hitzaldian erantzungo ditu. Horretarako, Zero Zabor taldeak *e-mail* bat jarri du, eta herritarrek animatu nahi ditu aldez aurretik galderak egitea: [zerozabor@gmail.com](mailto:zerozabor@gmail.com). Horrez gain, Lozanok emandako beste hitzaldi baten bideo pasarte batzuk jarri ditu Zero Zabor taldeak bere web orrian, jendeak ikusi ditzan: [www.zerozabor.ning.com](http://www.zerozabor.ning.com). ||

## Andoaingo 'Construcciones Metalicas Adarra' enpresako langileek greba hasi dute; tartean hernaniarrak ere badira

ELA sindikatuak esan duenez, enpresak bi langile kaleratu ditu, eta daukaten EREaren baldintzak okertu egin ditu.

ELA sindikatuak Kronikara bidalitako prentsa oharrean adierazi duenez, greba mugagabea hasi dute Andoaingo *Construcciones Metalicas Adarra* enpresako langileek. Tartean hernaniarrak ere badira, adierazi dutenez «gure lan baldintza duinen alde hasi dugu greba».

Langileek diotenez, enpresak kaleratu egin ditu bi langile, eta EREaren bal-

dintzak okertu ditu. Enpresa honetako langileak urte eta gehiagoan daude EREan. «Orain arte %100eko EREan egon gara. Langabezitik kobratzen genuen zati bat, eta gainerakoa enpresak ordaintzen zigun, soldataren %100 osatu arte. Orain, eskaini digu soldataren %70 osatzeraino ordaintzea». Langileek diotenez, enpresak irabaziak izan ditu 2009-

an, eta datu horiek erakusteko eskatu diete, «datu ekonomikoak azaltzeko eskatu dugu eta baita etorkizuneko lan karga zein izango den ere, baina enpresak ez dizkigu erakutsi nahi. Guk 3 gauza eskatzen ditugu: ez bi langileak kaleratzeko, EREaren baldintzak ez aldatzeko eta guri azaltzeko 2009ko datu ekonomikoak, eta etorkizuneko lan kargak». ||

## ❖ UR LUDOTEKA

### Urarekin jolasean, bihar kiroldegian

Ur jolasak izango dira bihar, Hernaniko igerilekuetan. Goizeko 10:00etatik 12:00etara daukate aukera Hernaniko umeek, igerilekuan jarritako jolasekin edo beraien kasa, ondo pasatzeko. ||

## ❖ AHT - MANIFESTAZIOA HENDAIA

### Manifestaziora joateko deia

Hernaniko AHT gelditu elkarlanak dei egin die hernaniar guztiei gaur AHTren kontra egingo den manifestazioan parte hartzeko. Manifestazioa Hendaiaiko geltokitik abiatuko da, arratsaldeko 16:00etan. Ekitaldia babesten dutenak talde hauek dira: Berau Berdeak, Ezker Abertzalea, LAB eta Iparraldeko hainbat eragile. ||

## ❖ BIGARREN ESKUKO AZOKA

### Bigarren eskuko azoka datorren larunbatean

Hernaniko Kultur Ekintzen orrian jartzen du, Bigarren Eskuko Azoka izango dela gaur, baina datorren larunbatean izango da, Hernaniko Udalak jakinarazi duenez. Bigarren Eskuko Azoka hileroko azken larunbatean izaten da beti, eta urtarilean ere hala izango da, urtarilaren 30ean. ||

## ❖ GALDUTAKOAK

### Galdutako txakur bat dabil Goizuetako Ixkibi kanpinean

Badira egun batzuk, Goizuetako Ixkibi kanpinean galdutako txakur bat dabilela. Txakurra gorrixka da, eta gaztea ematen du, Ixkibi kanpinetik Kronikari jakinarazi diotenez. Norbaitek galdu badu, deitu: 687 256 384. ||

## ❖ SEDIVI ELKARTEA - HERRERA

### Gipuzkoako alargun, banatu eta dibortziatuen elkarteak parte hartzeko deia hernaniarrei

Sedivi elkarteak da, Gipuzkoako alargunen, banatuen eta dibortziatuen elkarteak. Sedivi elkarteak hernaniarrei dei egin die, elkarteak ezagutzera joateko, eta elkarteko ekintzetan parte hartzeko. «Bakarrik bazaude eta lagunak egin nahi badituzu edo denborapasako ekintzetan parte hartu, etorri zaitez gu ezagutzera. Larunbatero egiten ditugu bilerak, arratsaldeko 20:00etan, eta ondoren afaltzera geratu zaitezke». Sedivi elkarteak Herrian dago, baina Gipuzkoa mailako elkarte bat da. Parte hartu nahi duenak telefono honetara deitu behar du, aldez aurretik: 943 404 656. Mezua utzi kontestadorean eta beraiek jarriko dira zurekin harremanetan. ||

**Hitzaldi eta solasaldia**  
Urtarrilak 26, asteartea  
Biterin  
20:00tan

**Eta erraustegia zer?**

**Peio Lozano**  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
Lurralde antolamenduko irakaslea

**HZZ**

# 'Sagar martxa' oinezko ibilaldia da txotx egitarauari hasiera emango diona

Otsailaren 7an egingo da oinezko ibilia, sagardotegiz sagardotegi, goizeko 09:00etan abiatuta; Gudarien plazatik.

TXOTX denboraldia ekitaldiz betea dugu aurten ere, eta kolore guztietako ekintzak izango dira, otsailean hasi eta apirila bukaera arte. Perkusioa, piroteknia edo zirkoa; kontzertuak, antzerkia edo omenaldia... gusto guztietara.

Urteroko ekintzak ere izango dira: Sagar Lasterra, Tolarea Kofradiaren Kapituluak, eta Sagar Eguna.

rako izango da. Lehendabiziko ekitaldia, aurtengo nobedade jo dutena, *Sagar Martxa*, otsailaren 7an.

## Sagardotegiz sagardotegi, geldialdi eta guzti

Oinezko martxa izango da otsailaren 7an, egitarauari hasiera emateko. Gudarien plazan abiatuko dira, goizeko 09:00etan, eta sagardotegietan barrena egingo da ibilia. Oraindik bidea erabat zehaztu ez badute ere, 10 km ingurukoa izan liteke, eta tartean, geldialdia egingo dute, indarberritzeko, sagardotegi batean.

## Urterokoak aurten ere bai

Ohizko bihurtu diren ekitaldiak aurten ere badute lekua txotx egitarauan. Sagar Lasterra lasterketa, adibidez, martxoaren 6an izango da. Tolarea

Kofradiak aurten XVgarren kapituluak egingo du, martxoaren 21ean. Chillida Lekuko urteroko Sagar Eguna ere egingo da aurten, bosgarren urtez, martxoaren 28an.

## Erretzen ez duen piroteknia

Espektakulu berriena, agian, azken ekitaldikoa izango dugu. Castellonetik etorriko da *Spectrun* taldea, «erretzen ez duen piroteknia» eta guzti. Kalejira eta piroteknia uzartuko dituzte, apirilaren 28an.

Umeentzako ekitaldiak, gazteentzako kontzertuak, eta adin guztientzako perkusioa dira, beste ekitaldi batzuren artean, egitaraua osatuko dutenak. II

## 2010 EKO TXOTX DENBORALDIKO EGITARAU

**Otsailak 7, 'Sagar Martxa'.** Oinezko ibilaldia. 09:00etan, Gudarien plazatik.

**Otsailak 27, 'Zo-zongo perkushow' perkusio taldea.** 19:00etan kalean barrena.

**Martxoak 6, Sagar Lasterra.**

**Martxoak 7, Harritxu Maritxu emanaldia haurrentzako.** Ane Monna Oskola eta Karramarroi taldearekin. 17:00etan Atsegindegi plazan.

**Martxoak 21, Tolarea Kofradiaren XV kapituluak.**

12:00etan Kalebuelta. 13:00etan ekitaldia Biteri kultur etxean.

**Martxoak 28, V.Sagar Eguna.** 12:00etan Chillida Lekun.

**Apirilak 16, Bizardunak. Kontzertua.** 23:00etan Gudarien plazan.

**Apirilak 18, 'Zirko Eguna' umeentzat.** Azulkillas zirko taldea. 11:30etan zirko tailerrak. 17:30etan kalejira eta emanaldia.

**Apirilak 25, 'Spectrun' kalejira eta piroteknia.** Castellongo taldea. Erretzen ez duen piroteknia. 20:00etan kalean barrena.

## Jasota Bezala

### HEZKUNTZA EZ DA MERKANTZIA

Kaixo, berriz ere Langile Ikastolako gurasook protesta egin behar izan dugu Hezkuntza Departamenduak Donostian duen bulegoetan.

Hezkuntza Departamendua egitasmo berri batzuk eramaten ari da aurrera, Langile Ikastolari zuzen zuzenean eragiten diotenak. Baina egitasmo horiek ez dute, inolaz, bertako gurasoen eta irakasleen oniritzia.

Langile Ikastola orain dela 40 urte inguru jaio zen. Eta pasa den denbora guzti honetan milaka ume izan dira Ikastolatik pasa direnak. Urte guzti hauetan, esparru guztietan, garai berriei egokitzeko lana etengabekoa izan da ikastola barruan (eraikinak, matrikulazioan izandako gorakadari erantzuteko neurriak, jangelako eta bestelako zerbitzuak...), baina batez ere, egokitze lanean buru belarri aritu baldin bagara, aurrera daramagun Hezkuntza Proiektu berritzailearen alde izan da. Hezkuntza Proiektu honek berezitasun asko ditu eta hauek guztiak aztertu eta egokitu izan dira, etengabe, Ikastola osatzen dugun sektore ezberdinen parte hartzearekin (gurasoak, irakasleak, langileak eta ikasleak). Hezkuntza Proiektu honek errekonozimendu anitz izan ditu eremu askotan, eta baita Hezkuntza Departamenduan ere. Eta honen guztia-

ren emaitza garbienetako bat hau da: Hernaniko gurasoen gehiengo handi batek Langile Ikastola aukeratzen du beraien seme-alabak matrikulatzeko orduan, 2-16 urte bitarteko ikasketak egiteko.

Eta gure proiektua bultzatu eta lagundu beharrean, Hezkuntza Departamendutik proiektuaren kontrako bi neurri hauek inposatu nahi dituzte:

1-Hernaniko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3 zentroen fusioa (DBH 12-16 urte). Beharrezkoa den adostasuna lortu gabe eskola bakarra sortu nahi dute. Egia da beste 2 zentroak ados daudela fusioarekin (edo bai behintzat bertako irakaslegoa). 2 zentro hauek matrikulazio galera garrantzitsuak dituzte Irakasle askok Donostiara ikastera joateko erabakia hartzen dutelako, eta Hezkuntza Departamenduaren iritzi zentro bakar batean ikasle guztiak bateratzeak joera hauek geldiaraziko ditu. Baina Langilen pentsatzen dugu, neurri honek beste ikastolen arazoak ez dituela konponduko. Are gehiago, zoritxarrez, arazoa handiagotu egin daiteke, masifikatuta eta hezkuntza proiektua ez duen ikastola batean, gure seme-alabak matrikulatzera behartuta aurkitzen bagara, herritik alde egiteko joera Langile ikastolan ere eman daitekeelako. Irtenbide ezberdinak daude, baina Hezkuntza Departamenduak ez du en-

tzun nahi. Planteatzen diren arazoak fusioarekin ados dauden 2 ikastolekin eman daitezke: 2 ikastola hauek fusioatuz, Langile ikastolari 2-16 proiektua garatzeko bidea irekiz, eta gainera herrian 2 Hezkuntza Proiektu ezberdin eskainiz. Eta esaten duguna ez da tontakeri bat. Baina Hezkuntza Departamenduak berean jarraitzen du eta harrigarria bada ere, egin diren alegazio guztietatik bakar bat besterik ez dute onartu: datozen bi ikasturteetan DBH1 eta DBH2 fusioatzea, eta horren ondorioz, bi urte hauetan 12 eta 13 urteko umeak 18 urteko institutuko gazteekin eraikin berean sartzea. Ertu egin al dira oraingoan? Hau gutxi balitz, mehatxuka hasi dira hezkuntza proiektua, instalazio egokiak, zuzendaritza eta irakasle goa ez duen zentro berri honetan beraien seme-alabak matrikulatzeko zailtzak dituzten gurasoekin.

2-Langile ikastola 3 lerrotara mugatzea (75 ikasle gehienez). Esan dugun moduan Langile Ikastolak eskaintzen duen Hezkuntza Proiektua Hernaniko guraso askoren gustukoa da. Azken boladan 4 lerroetara mugatu behar izan dugu Haur hezkuntzako matrikulazioa 2 arrazoiengatik: masifikazioak Hezkuntza proiektuan izan dezaken eragin okerrenegatik eta Hezkuntza Departamenduak berak beharrezko ditugun irakasleak eta

errekurtsoak bidaltzen ez dizkigulako. 4 lerro horiek kalitatezko baldintzetan aurrera eramateko asmoarekin irakasle guztiek ahalegin berezia egin behar izan dute. Baina horrela izanda ere, azken 2 urteetan Langile Ikastolan beraien seme-alabak matrikulatu nahi zituzten 28 familia beste ikastoletan matrikulatzera behartuak ikusi dira.

Eta orain ere Hezkuntza Departamenduak irtenbidea bilatu dio arazo honi: Langile Ikastola 3 lerrotara mugatzea eta gelditzen diren matrikulazio guztiak beste ikastoletara bideratzea. Non gelditzen da gurasook gure seme-alaben hezkuntza proiektua aukeratzeko dugun eskubidea?

Egoera honen aurrean zenbait bilera egin ditugu Departamenduekin, baina bilera hauek ez dute ezertarako balio izan. Protestaren bidea gelditzen zaigu... eta horretan jarraituko dugu.

Gai honen inguruan eta aurreko para-grafoetan ukitu ezin izan ditugun atal ezberdinen informazio gehiago, ikastolako web orrian aurkitu dezakezue: [www.langile.com](http://www.langile.com).

Mila esker zuen arretagatik eta beste bat arte.

Adolfo Masid Balda  
M. Itziar Santamaria Irizar  
Amaya Urbietta Lezea

LANGILE IKASTOLAKO GURASOEN IZENEAN

## TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

## ADSL ESKAINTZA

### DUO 10 Mb

12 kuota 19,9€

DUO  
ALTA  
DOAN

MRI\*  
BARNE

12 hilabeteko konprometua  
eta orain PACK MOVISTAR opari

### TRIO FAMILIARRA 6 Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI  
+ INSTALAZIOA  
DOAN

MRI: modem, router, wifi

### TRIO FAMILIARRE 10Mb

12 kuota 34,9€

ALTA + MRI  
+ INSTALAZIOA  
DOAN

Promozio epea otsailaren 7a.

Euskaraz hitz egiteko laguntza nahi dutenak eta laguntzeko prest daudenak biltzen ditu Gure Artean Euskaraz egitasmoak. Dobera Euskara Elkarteak antolatuta, eta euskaltegi, ikastetxe eta Udalaren babesarekin, sei urte daramazki martxan eta urte guzti hauetan herritar asko

izan dira doan eta erosotasunez euskara praktikatu dutenak. Aurten, 34 ari dira parte hartzen, eta horietatik 6 dira laguntzaileak. Doberaren esanetan, «jende asko dago euskaraz hitz egiteko gogoz, baina laguntzaile nahikorik ez». Bi kasuetan apuntatzeko aukera dago oraindik.

## Gure Artean Euskaraz egitasmoa

# Euskaraz aritzeko laguntza eta konpainia, neurrira

EUSKARAZ hitz egin eta praktikatu nahi bai, baina askok ez dute beti neurriko gunerik edo pertsona egokirik topatzen. Hain zuzen, pertsona horiei laguntzeko dago Gure Artean Euskaraz egitasmoa. Euskaraz hitz egiteko laguntza edo konpainia nahi dutenak eta laguntzkeo prest daudenak biltzen ditu egitasmo honek. Dobera Euskara Elkartearen, euskaltegien, ikastetxeen eta Udalaren elkarlanaren bidez sortu zen orain dela 6 urte.

### «Lotsa galtzeko eta segurtasuna irabazteko bidea»

Gure Artean Euskaraz parte hartzen dutenak talde txikitan edo binaka elkartzen dira, astean behin, euskaraz hitz egiteko ohitura duen euskaldun batekin. Eguna eta ordua beraiei artean zehazten dute. Nagore Zubeldiak Dobera Euskara Elkartetik Kronikari azaldu dionez, «orokorrean parte hartzen duten pertsonak 35-50 urte bitartekoak dira eta apuntatzeko arrazoi nagusia izaten da inor ez daukatela euskaraz hitz egiteko. Euskaltegian ikasten dutenarekin bakarrik ez dira ausartzen harategian euskaraz hitz egitera. Gure Artean Euskaraz aritzen direnek lotsa galtzen dute, segurtasuna irabazten dute eta lehenengo hitza euskaraz egiten ausartzen dira».

### Laguntzaile gehiago behar

Gure Artean Euskarazek martxan



Astean ordubetez biltzen dira partaideak nahi duten toki eta orduan, euskara erabilia, nahi dutenaz hitz egiteko.

daramatzan 6 urte hauetan herritar asko izan dira parte hartu izan dutenak eta jendea oso gustora aritu izan da Zubeldiak azaldu duenez. Joan den urtean, 40 herritarrek hartu zuten parte: 30 laguntza jasotzen eta 10

laguntzen. Aurten, sei talde daude martxan. Guztira izena eman dutenak izan dira 34 eta horietatik laguntzaileak 6 dira. Zubeldiak jakinarazi duenez, euskaraz hitz egin nahi dutenei laguntzeko prest dauden euskal hiz-

tun gehiago behar dituzte. «Jende asko dago euskaraz hitz egiteko gogoz, baina laguntzaile nahikorik ez dago. Ondorioz, talde batzuk haunditu egin ditugu, eta nik neuk talde bat hartu dut. Pena da laguntzaile falta-

**LOKEFALTABA** (...)

**MERKEALDIA !!!**

Egungo moda neska/mutilla

**Prezio ezinhobeak...**

Zatoz gu ezagutzera.

Gudarien plaza, Hernani. Tfnoa: 943 56 26 62



**mikel armendariz**

proiektu eta instalazio  
elektrikoak

Tel. 649 846 422  
**HERNANI**

**Alicia Carrasco Campuzano:**  
**COACHING - PNL**

"Pertsona bakoitzaren onena, pertsona bakoitzaren barruan dago."

**Zer da COACHING - PNL?**

Bizitzan arrakasta lortzeko norberak duen potentziala askatzeko laguntza.

Inongo blokeo edo barne korapilorik sentitzen baduzu...

Zure bizitzaren bidean laguntzarik edo konpainiarik beharrez gero...

...Zure garapen pertsonala indartuz, soluzio bidean lagunduko zaitugu.

**Coaching, Pnl, Flores de Bach...**

Ez etsi soluzioen bidean.

Agustindarren plaza, 4. lokala. Tfnoa: 653 267 146.

**UNIBERTSITATEKO****IKASLEEK 3 KREDITU****45 ORDUTAN, LAGUNTZAILE GISA PARTE HARTUTA.**

AEKk eta Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmen bat dute eta horren arabera, AEKren mintzapraktika egitasmoetan (Gure Artean Euskaraz, Berbalagun, Mintzalagun...) parte hartzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek aukera askeko kredituak eskuratu ahal izango dituzte.

Adostutakoa honakoa da: Unibertsitateko ikasleen zerregina: mintzapraktika egitasmoan dauden euskaldun berriekin astean ordu batez elkartzea eta euskara ikasleak ikas prozesua amaitu dezan laguntzea. Egitasmo hauek mintzataldeetan antolatzen dira eta unibertsitateko ikasleak bertan integratuko lirateke eta laguntzaile papeira beteko lukete. Denera 45 ordu, hau da, 3 kreditu.

Beraz, Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartzen duten ikasleei euren espediente akademikoko aukera askeko kredituak lortzeko aukera emango lieke. AEKren Praktika Zerbitzua berriz, ikasle horien jarraipena eta ebaluazio txostena egiteaz arduratuko litzateke.

tik talde gabe geratzea. Pentsatzen dut jendea oso lanpetuta dabilela, lana dela, umeak direla... eta zaila da ordutegian bat etortzea. Baina astean ordubete bakarrik izanda, asko lagundu daiteke». Parte hartzaileen artean 25 Hernanikoak dira eta gainerakoak: Urrietakoa, 4; Astigarragakoa, 1; eta Donostiakoa, 4. Donostiatik gainera, laguntzaile bat ere animatu da.

**Parte hartzeko aukera oraindik bada**

Oraindik nahi izanez gero, bada apuntatzeko aukera, bai laguntza jasotzeko bai laguntzeko. Horretarako Doberatik pasatzea besterik ez dago (Larramendi 11, behe) edo telefono honetara deitu: 943 332 799. ||

**MARISOL FLORINDO ETA LUCILA GARCIA**

Gure Artean Euskarazeko parte hartzaileak:

«Dakiguna ez ahazteko, hobetzeko, eta lotsa galtzeko apuntatu gara»

**Marisol Florindo talde bila**  
Dobera Euskara Elkartearen bidez eman du izena Marisol Florindok Gure Artean Euskaraz egitasmoan. Eta oraindik talde bila dabil euskara praktikatu ahal izateko. «Lehenbailehen hasteko gogoia daukat, ea prest dagoen baten bat azaltzen den!».

Bere asmoa da «beste pertsonaren batekin elkartu, euskaraz hitz egin, praktikatu eta horrela trebetasun haundiagoa lortzea. Nire euskara hobetu nahi dut eta ziurtasun gehiago lortu nire buruan».

Florindok gaztelera du ama hizkuntza eta ikasketak eta gaztelera egin ditu beti. Baina txikitatik nahi izan du euskara ikasi, eta 19 urtetik 23ra euskaltegian aritu zen. Egun 36 urte ditu eta ordutik

Hizkuntza Eskolan ere ibilia da eta hilabete ere pasea du barnetegi batean. «Ikasitakoa gutxi praktikatu dut urte hauetan, lotsa dela eta. Alabarekin saiatzen naiz tarte, baina ohitura falta dela eta, gaztelera jotzen dut. Ezagunekin gehiago kostatzen zait eta iruditzen zait Gure Artean Euskarazekin lortuko dudala soltatzea».

Florindo: «Lehenbailehen hasteko gogoia daukat, ea prest dagoen baten bat!»

**Lucila Garcia oso gustora**  
Lucila Garciak ere euskara menperatzen du gramatika eta idazkera aldetik, baina hitz egitea kosta egiten zaio la azaldu du. «Gramatika-

rekin-eta moldatzen naiz, baina ahozkoa zaila egiten zait. Ni ere alabarekin saiatzen naiz, baina ez nago ohituta eta kosta egiten zait. Gainera, zuzendu egiten zaituzte. Egoeraz aprobeztatzen dira!».

Garcia martxotik dabil Gure Artean Euskaraz. Hiru elkartzen dira ostegun arratsaldetan eta oso gustora dagoela azaldu du. «Nik uste dut aurreratzen ari naizela. Gainera oso ondo pasatzen dut. Denetik hitz egiten dugu, par asko egiten dugu eta denbora berehala pasatzen da. Askotan bi orduz ere aritzen gara».

Garciak Udalean egiten du lan eta lankide batek esanda animatu zen. «Dakidana ez ahazteko eta erraztasun gehiago lortzeko apuntatu nintzen».

Garcia: «Nik uste aurreratzen ari naizela. Gainera oso ondo pasatzen dut.»

**«Kalean hitz egiten den hizkera lantzen duzu»**

Gure Artean Euskaraz bezalako egitasmoen funtzionamendua egokia dela iruditzen zaie Florindo eta Garciari. «Euskaltegietan-eta euskara ikasten duzu baina ez kalekoa. Egitasmo hauen bidez jendearekin hitz egiten duzu eta benetan kalean hitz egiten dena lantzen duzu, ez hain *pedantea*», azaldu dute. Eta nabarmendu dute: «gainera aisialdi moduan da, ez duzu klasera joan beharrik. Klaseetara joatea obligazio moduan hartzen da azkenean. Eta ordutegia ere zuk erabakitzen duzu». ||

**IRUBIDE JATETXEA**



Enkarguzko janak  
Gordetako jantokia  
Eguneko menua  
Asteburuko menua  
Karta

IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - ☎ 943 552 480



**IRUBIDE**

**Arrandegia**  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 Hernani

**Vanesa eta Miguelo Harategia**

Aukera ezinhobea !!  
Urtarrilak 18tik - 24ra.  
Egin zure enkargua !!  
Gaur, larunbata arratsaldez itxita !!

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)  
AUKERA ZABALA!!...ETA ENKARGUZ:

1 kg ALBONDIGAK + OILASKO ERREA **13,50€**

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

◆ PELOTA

# Pelota partidu asko, eta garrantzitsuak, gaur Hernaniko pelotariek

Bi final jokatu  
dituzte paleta goman  
eta bi finalerdi  
trinketean.

Berria txapelketako  
partiduak ere izango  
dira gaur eta bihar  
Hernanin. Eta azkenik,  
Mendizabal IIak eta  
Olaizola IIak gaur  
jokatuko dute Mtz de  
Irujo eta Beroizen  
kontra.

HERNANIKO pelotariek parti-  
du garrantzitsu asko jokatu  
dituzte, gaur. Aipagarrienak  
izan litezke, gaur jokatu  
diren bi finalak. Irazustaba-  
rrenak eta Ugaldek, gaur  
Euskal Herriko txapelketako

finala jokatu dute, Maña-  
rian, 17:00etan, Amurrioren  
kontra. Horrez gain, Gi-  
puzkoako 2. mailan, Tijerok eta  
Zabalak Anoetaren kontra jo-  
katuko dute, Anoetan, 16:00-  
etan. Eta bi finalerdi ere jokatu-  
ko dituzte, biak trinketean,  
gaur, eta Iruran. Batetik, Aritz  
Otaegik jokatu du, Loiola-  
tarraren kontra; eta bestetik,  
Josu Altunak jokatu du,  
Oiarperen kontra.

**Berria txapelketa gaur eta  
bihar Hernanin**  
Berria txapelketa hasi berri da,  
eta gaur, eta bihar partiduak  
izango dira Hernanin. Euskal  
Herriko pelotaririk onen-  
tsuenak jokatzen dute Berria  
txapelketa, eta aukera parega-  
bea da, promesa berri horiek  
bertatik bertara ikusteko.

Gaur, 11:00etatik aurrera,  
Markina eta Oiarpe (Oiar-  
tzun) ariko dira zein baino  
zein, eta bertan izango dira,  
Ugalde II, Imaz, Arrieta, Are-  
txabaleta, edo Olalde bezain

pelotari dotoreak.

Bihar, 10:30etan, Gure  
Kirola (Barakaldo) eta Ilunpe  
(Azpeitia) ariko dira. Hor ere,  
gaurko promesarik onentsue-  
nak ikusteko aukera izango  
da: Etxaniz, Aizpuru, Larra-  
ñaga edo Uzkudun, adibidez.

**Partidu Hernanin  
gaur arratsaldean ere**  
Bestalde, Hernanin txapelketa-  
ko partiduak izango dira gaur  
arratsaldean ere, 16:00etatik  
aurrera. Bertan ariko dira, ka-  
deteetan, Leonet-Garcia, Urnie-  
taren kontra; jubeniletan, Lo-  
pez-Elortza, Tartaloetxeren  
kontra; eta nagusietan Oiaga-  
San Sebastian, Lagunak taldea-  
ren kontra.

**Oier Mendizabalek gaur  
jokatuko du**  
Azkenik, profesionaletan, bina-  
kako txapelketako ligako parti-  
dua dute gaur Mendizabal IIak  
eta Olaizola IIak, Mtz de Irujo  
eta Beroizen kontra. Labriten,  
17:15etatik aurrera. ■



Amaia Irazustaberrenak finala jokatu du gaur, Irati Ugalderekin  
batera, Mañarian, Amurrioren kontra.

◆ ATLETISMOA

**Maitane Iruretagoyena  
Euskadiko txapeldun,  
errekorra eginda, eta  
Julen Iruretagoyena  
bigarren**

Joan den asteburuan Euskadiko Txa-  
pelketa jokatu zen Donostiako Belo-  
dromoan eta bertan parte hartu zuten  
Maitane eta Julen Iruretagoyena anai-  
arrebek. Eta biek domina bana lortu  
zuten. Maitanek junior mailan 200 metro-  
ko frogan hartu zuen parte eta urrezko  
domina lortu zuen 24,92ko denbora  
eginda. Txapeldun izateaz gain, marka  
pertsonala egin zuen eta baita bere tal-  
deko, hau da, Atletiko San Sebastian tal-  
deko errekorra ere. Julenek, berriz,  
kadete mailan, altuera jauzian hartu  
zuen parte eta zilarrezko domina lortu  
zuen 1,50 metroko jauzia eginda. ■

◆ ARETO FUTBOLA

**Irabazi beharra dago gaur!**

Bigarren buelta hastera dijoa, eta Yone  
Boutique 6garren dago, azken emaitza  
txarreatik. Igoera fasea jokatu nahi  
badute, gaur irabazi beharra daukate,  
Garetxe Lazkao taldearen kontra,  
18:00etan Lazkaon. ■

◆ ARRAUNA

**Batel liga bihar hasiko da**

Bihar hasiko da Gipuzkoako batelen  
liga, eta lehendabiziko estropada Orion  
izango da, goizeko 10:00etan, autopis-  
tako zubi parean hasita. Hernaniko 6  
batel izango dira bertan, eta elkartetik

adierazi dutenez, «batzuk emaitza bila  
eta besteak esperientzia pilotzera,  
gogotsu aterako dira denak». Mutiletan,  
infantilek batel bat osatu dute, kadeteek  
bi batel, eta jubenil eta seniorren artean  
beste bi batel. Neskek berriz jubenil-  
senior kategorian, batel bat aterako dute  
lehiara. ■



**Bizikletarik abilenak, bihar Fagollagan.** Fagollagako errio bazterrean,  
bihar izango da zer ikusia, Gipuzkoako bizikletarik abilenak etorriko baitira, urtero  
bezala. Lokatz, aldapa eta harkaitzetan ibilbidea markatu, eta hankarik lurrean  
gutxien jartzen duenak irabaziko du txapelketa, ikusgarria, inondik ere. Iazko txa-  
pelduna eta munduko txapelduna den Benito Ros kataluniarra ere agian etorriko  
da bihar lehiatzera. Goizeko 10:30etan hasita, bihar, Fagollagan. ■

◆ XAKEA

**Bi jardunaldi, Donostian  
eta Hernanin**

Hernaniko bi xake taldeek gaur jokatu  
dituzte euren partidak. Hernani Ak  
Fortuna Bren kontra jokatu du,  
Grosen, 16:00etan. Hernani Bk  
Billabonaren kontra jokatu du,  
Hernanin, 16:00etan. Joan den astean,  
Hernani Ak galdu egin zuen Anaitasu-  
naren kontra 0-4; eta irabazi Eibarren  
kontra 0,5-3,5. Hernani Bk berdindu  
egin zuen Fortuna Cren kontra, 2-2. ■

◆ BOLA

**Bihar hasiko da binakako  
txapelketa**

Binakako txapelketa jokatu dute  
bihartik aurrera Hernaniko bolariak. Bost  
jardunaldi izango dira, eta bihar izango  
da lehenengoa, Añorgako bolatokian.

Joan den igandean bukatu zen tal-  
dekako txapelketa, Legazpin, eta  
Ategorrieta izan da txapeldun 530 brila  
botata. Bi jardunalditan jokatu da txapel-  
keta, eta Hernaniko taldeek emaitza  
hauek lortu dituzte: CD Hernani 5garren,  
509 brila botata; Elur Txori 6garren,  
506 brila botata; eta Ur-Mia 11garren,  
452 botata. ■

◆ **ERRUGBIA - Urrezko Kopa**

# Durangori bihar irabazita, lehenengo faseko txapeldun

Landaren 12:00etan izango da partidua. Hernanik irabaziko balu, bigarren fasea jokatu luke Ohorezko Mailako taldeen aurka.

SENIOR mailako Hernani taldea Urrezko Kopa jokatzen ari da eta bihar lehenengo faseko finala jokatu du Durangoren aurka. Finala Landaren jokatu du eguerdiko 12:00etan. Zuzenean ikusteko aukerarik ez duenak, bi ordu beranduago, hau da, arratsaldeko 15:00etan, telebistaz ikusteko aukera izango du ETB3an.

**Bigarren fasea Ohorezko Mailako taldeen aurka**  
Hernanik gaur Durangoren aurka irabaziko balu, lehenengo faseko txapeldun izango litzateke eta Urrezko Kopako bigarren fasea jokatuko sailkatuko litzateke. Bigarren fasean, Ohorezko Mailako hiru taldeak izango litzuzke aurrez aurre: Gernika, Bera Bera eta Ordizia.

**Ligaxka modukoa**  
Bigarren faseko lehenengo partidua otsailaren 13-14ko asteburuan jokatu da. Hernani sailkatuko balitz, Gernika izango luke aurkari. Bigarren partidua, berriz, hilabete beranduago, martxoaren 13-14ko asteburuan jokatu da Bera Beraren aurka. Eta hirugarrena, martxoaren 20-21eko asteburuan Ordiziaren aurka. II

◆ **FUTBOLA**

## Hernanik Tolosaren kontra jokatu du gaur Berazubín

Berazubi zelaian jokatu dute gaur, Erregionalen Ohorezko mailan, Hernanik eta Tolosak. Hernaniarrak urte bukaera eta hasiera onak egin dituzte, eta gaur ere bolada onari eutsi asmoz jokatu dute Tolosan, 16:30etan. II

## Emakumezkoen ligan, igoera fasean, Eibar-Hernani

Hernanik igoera faseko lehenengo partidua jokatu du bihar, Eibar talde gogorraren kontra, Unbe zelaian. Hernaniarrak ilusioz ekingo diote fase honi, bihar hasita, 14:00etan, Eibarren. II

◆ **BOLEIBOLA**

## Neskek Galdakaon jokatu dute, eta mutilek Gasteizen

Galdakao taldearen kontra hasiko du Hernaniko nesken taldeak ligako bigarren buelta. Joan den astean ez zuten batere emaitza ona lortu, baina joku ona erakutsi zuten, entrenatzailearen esanetan. Bigarren bueltarako animatuta daude hernaniarrak, eta lehendabiziko fasean izan dituzten emaitzak baino hobekiago izateko esperantza osoa dute. Partidua, Galdakaon, bihar, 10:00etan.

Mutilen taldeak, bihar Lankide Aranbizkarra taldearen kontra jokatu dute, Gasteizen, Aranalde kiroldegian, 12:00etan. Joan den astean erraz irabazi zuten hernaniarrak eta indarrean dabilta, bai jokoz eta bai buruz. II

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## † JOAKIN ARREGI ARIZAGA

JAUNA  
**KAPOTE-BERRI BASERRIKOA**  
(Maria Iraolaren alarguna)  
Atzo hil zen Hernanin, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta



- Goian Bego -

Seme-alabak: Loli eta Carlos Sanchiz, Clara eta Jesus Roldan, Juan Bautista eta Juana Mari; bilobak: Naiara eta Urtzi; Nerea eta Andoni, Patxi, Klara; anai-arrebak: Primitivo, Juan Cruz eta Jose Antonio; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **22:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 23an**

Helbidea: Santa Maria Magdalena egoitza.  
Oharra: Gorputza ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

## JOAKIN ARREGI ARIZAGA

Muxu bat  
attona



**NAIARA, NEREA, PATXI, KLARA, ANE eta JULEN**

**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 23an**

## JOAKIN ARREGI ARIZAGA

Zure oroimena  
beti izango da gure bihotzetan



**JOSE RAMON, AINHOA, OLATZ, NAGORE eta JOSU**

**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 23an**

### III URTEURRENA

#### ANTONIO


#### ALDUNZIN AGUIRREZABALA

### IV URTEURRENA

#### MARTIN

#### ALDUNZIN ETXABE

*Ezpain goxo gorrietan  
zenuten irrifar mardula  
bihotz handikoak ere  
hori ezin disimula  
zerura joan zineten baina  
gurekin maitasun lotura  
jakin ezazue saihetsean  
sentitzen zaituztegu  
ETXEKOAK*



Beraien aldeko **Urteurreneko meza BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko 12:00etan izango da, Hernaniko **SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, familiaren eskerrak.

**Hernanin, 2010eko urtarrilaren 23an**

### ESKERTZA

#### FELIX AROZENA APEZETXEA

2010eko urtarrilaren 17an hil zen, 83 urte zituela.

- Goian bego -

Felixen emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

**Ereñotzun, 2010eko urtarrilaren 23an**



# FUNERARIA ORBEGOZO ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

**Zentrala HERNANI**  
Latxunbe, 7

**HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA**

## TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalaritza anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
● **FARMAZIAK:** Egunez: **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauez: **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793

## EGURALDIA



**GAUR** Giro goibela espero da eta euria egingo du, baina gutxi. Tenperatura minimoek gorantz egingo dute baina maximoak freskoagoak izango dira. Min.8° / Max.12°.



**BIHAR** Haizea iparraldera aldatuko da eta eguraldiak txarrera egingo du nabarmen. Euri asko egingo du eta tenperatura jaitsi egingo da. Min.6° / Max.10°.

(euskalmet)



Buruntzaldeko euskara arloko eta autoeskoletako hainbat ordezkari izan ziren prentsaurrean.

## Buruntzaldean gidabaimenak euskaraz ateratzeko aukera

Materiala sortu eta merkaturatu da «oso egokia dena» prestakuntza euskaraz egiteko: paperezko soportean eta digiltalean.

AUTOESKOLA batzuk beren ahaleginak egin izan dituzte gidabaimena euskaraz eskaini ahal izateko, baina ez zuten material egokirik aurkitzen. Hori dela eta, Buruntzaldeko sei Udalek egitasmo bat jarri dute martxan bertako autoeskoletei laguntza emateko. Batez ere, Bizkaiko autoeskola baten ekimenez, materiala sortu eta merkaturatu da prestakuntza euskaraz egiteko «modu egoki

eta erakargarrian», Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako euskara teknikariak atzo prentsaurrean azaldu zuenaren arabera. Eta material hori erosteko dirulaguntza eman die Udalek autoeskolei. Idurre Lucas Hernaniko Euskara Delegatuak azaldu zuen, Administrazioak neurriak hartu eta bitartekoak jarri behar dituela herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko

aukera izan dezaten. Materiala paperezko soportean eta digiltalean da.

Buruntzaldeko autoeskola guztiek hartu dute parte egitasmoan eta Arantxa Otamendi Gipuzkoako autoeskolen elkarteko presidentek adierazi zuen, zerbitzu osoa euskaraz eskaini ahal izateko bidea luze samarra izango dela, baina hasiera sendoa dela. ■

## ❖ ZINEA

### ‘Todos estan bien’ komedia dramatiko helduentzat

Gaur eta bihar zine emanaldia izango da Biterin. Helduek ikusgai izango dute *Todos estan bien pelikula*. Robert de Niro eta Drew Barrymore aktoreak hartzen dute parte, besteak beste, komedia dramatiko honetan. Gaur ikusgai izango da 19:30etan eta 22:30etan; eta bihar, 19:30etan. ■

### ‘Shorts, la piedra magica’ haurrentzat

Haurrentzat ere izango da zinea gaur eta bihar. *Shorts, la piedra magica* emango dute. Pelikula honetan, Toe da protagonista eta harri magiko bat aurkituko du. Harri horren bidez, edozeinen desioak egi bihurtu daitezke eta pixkanaka auzoan kaosa nagusituko da. Arratsaldeko 17:00etan izango dira emanaldiak. ■

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m2, 3 logela, 2 komun, sukalde (osagai guztiekin) eta igogailua. 442.000€.

Deitu: 656 316 031.

Garaje itxia alokatzen da herri erdialdean. Deitu: 943 55 04 71 / 615 009 926.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33

(Agustindarren plaza, 4)

[www.salesianosurnieta.com](http://www.salesianosurnieta.com)

Tfnoa. 943 55 17 89

**SALESIANOS Urnieta**  
**SALESIARRAK**

**DBH**

Unibertsitate edo lanean hasi arte giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

**zatoz,**

Batzilergoa  
Teknologikoa / Natur-Osasun Zientziak / Humanistikoa  
Lanbide Heziketa  
Elektrizitatea/ Elektronika / Mantenimendua / Grafikagintza

**Puertas abiertas:**

6 de Febrero - 11:00h

**Ateak zabalik:**

Otsailak, 6 - 11:00

**Aurreinskripzioak: otsailak 1-12**

